

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

232. zenbakia

Data 2008-12-02

36041 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

Azaroaren 20ko 1008/2008 Foru Agindua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpenares 347 eredia onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Azaroaren 20ko 1008/2008 FORU AGINDUA, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpenaren 347 eredia onartu eta eredu horren barruko orrien ordeztar erabiliko diren euskarri magnetikoen baldintzak eta diseinu fisiko eta logikoak onartatzen dituenak.

Uztailaren 15eko 64/2008 Foru Dekretuak, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituenak, aldaketak sartu zituen, amaierako bigarren xedapena dela medio, abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuan, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena arautzen duen horretan. Hain zuzen ere, honako artikuluek aldatu zituen: 1.a, zergapekoak; 2.a, aitortpena aurkezteko betebeharrak salbuetsiak; 3.a, aitortpenaren edukia; 4.a, aitortpena betetzea; eta 7.a, urraketa arinei buruzko xehetasunak.

Hori dela-eta, beharrezko gertatzen da orain erabiltzen den 347 aitortpen eredia aldatzea, hala paperean nola diseinu fisiko eta logikoetan, erregulazio berrira egokitzearen.

Aipatutako 94/1996 Foru Dekretuaren amaierako lehen xedapenak baimena ematen dio Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuari foru dekretu hau garatu eta exekutatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. 347 eredia eta aurkezpen moduak onartzea.

Bat. Onarturik geratu da 347 eredia, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena betetzeko erabili beharrekoa.

Bi. Hiru aurkezpen modu hauetako bat erabilia aurkeztuko da hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena:

a) Paperezko euskarria, bi ale dituen, Administrazioarena eta interesatuarena, eta foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri den diseinuarekin bat etorriko dena.

b) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria. Bere diseinu fisiko eta logikoak foru agindu honetako II. eranskinean ezarritakoak izango dira.

Artikulu honetako c) letraren bigarren paragrafoan xedatutakoan izan ezik, aitortpenen zerrendatutako pertsona edo entitateak 100 baino gehiago baldin badira, aitortpenak nahitaez aurkeztu beharko dira ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian. Gainerako kasuetan hautazkoa izango da aurkezpen modu hori.

c) Transmisio telematikoa, foru agindu honen 5. artikuluan jasotako prozeduraren arabera.

azaroaren 18ko 1002./2008 Foru Aginduaren 1. artikuluan aipatzen diren zergapekoek bide hau erabilita aurkeztu beharko dute aitorpena.

2. artikulua. 347 eredua aurkeztera behartuak.

Pertsona fisiko edo juridiko guztiak, publikoak zein pribatuak izan, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35.3 artikuluan aipatzen dituen entitateak daude behartuta 347 eredua aurkeztera, betiere abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen aitorpena arautzen duenak, 1. artikuluan ezarritako eran.

3. artikulua. 347 eredua aurkezteko epea eta tokia.

Bat. Urte bakoitzeko otsailean aurkeztuko da hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena, 347 eredua, aurkezteko era inprimakia izan, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria izan, edo transmisio telematikoa izan, eta bertan aurreko urte naturalean egindako eragiketak jasoko dira.

Bi. Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetan, zerga bulegoetan edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamenduko Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuan aurkeztu ahal izango da 347 eredua, dela paperean dela ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian.

4. artikulua. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria aurkeztean jarraitu beharreko prozedura.

Bat. Ordenagailuz irakurtzeko aurkeztu diren euskarri guztiak behin-behinekoak izango dira, beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datorrenean, aitortzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio ordenagailuz zuzenean irakurtzeko aurkeztu duen euskarriaren akatsak zuzendu ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin bada eskatutako datuetara iritsi funtsezko arazoak oraindik hor daudelako, urteko laburpena ez aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio.

Informazioa behin prozesatuta, zirkunstantzia hori zergapekoari edo aitortzaileari jakinaraziko zaio, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria bueltan jaso dezan.

Bi. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriak banakako aurkezpena jasotzen badu, ondoko dokumentuok aurkeztuko ditu aitortzaileak:

1. 347 ereduaren urteko laburpen orriaren bi aleak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Behin horiek zigilatu ondoren, aurkezteari interesatuaren alea emango zaio aitorpena aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

2. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriak etiketa bat eraman behar du itsatsita kanpoaldean, eta bertan, ondoko datuok adieraziko dira, ordena honetan nahitaez:

a) Ekitaldia.

b) Aurkezpen eredua: 347.

c) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun agiria (NA).

d) Aitortzailearen deiturak eta izena, edo sozietate izena.

e) Aitortzailearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

f) Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

h) Euskarriaren dentsitatea.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiiboak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri bat baino gehiago duenean, euskarri bakoitzak sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango du era honetara: N/1, n/2 eta abar., «n» hori euskarri kopuru osoa izango delarik. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

Hiru. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriak taldekako aurkezpena jasotzen badu, aurkezleak ondoko dokumentuok aurkeztuko ditu:

1. 347 ereduan aurkezleari dagokion laburpen orriaren bi aleak, administrazioarena eta interesatuarena, behar bezala beteak eta sinatuak. Bertan honako datuak egongo dira adierazita: Aurkezle gisa diharduen pertsona edo entitatearen identifikazio datuak, aitortzaile kopuru osoa, eta guztira zerrendatutako pertsona edo entitate kopuruari dagozkionak. Halaber, dagozkion laukietan, ekitaldia eta aurkezpen mota ere adieraziko dira.

Behin zigilatu ondoren, aurkezleari «interesatuaren alea» emango zaio, aitortpena aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

2. Zergapeko aitortzaile guztiei dagozkien laburpen orrien bi aleak, 347 ereduarenak, behar bezala beteak eta izenpetuak.

Behin zigilatuta, aurkezleak beretzat gordeko ditu aitortzaileei dagozkien laburpen orrietako interesatuaren kopiak.

3. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriak etiketa bat eraman behar du itsatsita kanpoaldean, eta bertan, ondoko datuok adieraziko dira, ordena honetan nahitaez:

- a) Ekitaldia.
- b) Aurkezpen eredu: 347.
- c) Aurkezlearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun agiria (NA).
- d) Aurkezlearen deiturak eta izena edo sozietate izena.
- e) Aurkezlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.
- f) Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.
- g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.
- h) Euskarriaren dentsitatea.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiiboak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri bat baino gehiago duenean, euskarri bakoitzak sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango du era honetara: N/1, n/2 eta abar., «n» hori euskarri kopuru osoa izango delarik. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

5. artikulua. Aitortpena transmisio telematikoaz aurkezteko prozedura.

347 aitortpen eredu transmisio telematikoaz aurkezteko, fitxategi informatizatuen transferentzia elektronikoa erabiliko da, honako beharkizun eta prozedurei jarraituta:

Bat. Beharkizun teknikoak.

Honako zergapeko hauek aurkeztu ahal izango dute transmisio telematikoz 347 eredu: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan zerbitzu telematikoak erabiltzeko sinadura elektronikoko balioztatua edo pasahitz operatiboa daukaten zergapekoak, irailaren 40/2006ko 40/06 Foru Dekretuak, Foru Administrazioarekin egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzen duenak, 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jaso badute, eta programak eskatuko duen kontraste datua daukaten zergapekoak.

Aurkezlearen ekipo informatikoak lotuta egon behar Internetekin Netscape edo Explorer nabigatzaileen azken bertsioetako baten bitartez.

Bi. Fitxategi informatizatuak prestatzea.

Ondorengo modu hauetako batean presta daitezke bide telematikoz transmititu beharreko fitxategi informatizatuak:

a) Ogasun eta Finantza Departamentuak Interneteko webgune ofizialean jarria duen laguntza programa erabilita. Hona hemen helbidea: [Http://www.gipuzkoa.net/ogasuna](http://www.gipuzkoa.net/ogasuna)

b) Beste programa bat erabilita, betiere foru agindu honen II. eranskinean ezarritako diseinu fisiko eta logikoen araberrako fitxategia lortzeko aukera ematen badu.

Hiru. Datuak transmititzea.

a) Transmititu beharreko fitxategi informatizatua prestatu bada Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean jasota dagoen laguntza programa erabilita (<http://www.gipuzkoa.net/ogasuna>), bertan proposatutako urratsei jarraituko zaie.

b) Transmititu beharreko fitxategi informatizatua beste programa bat erabilita prestatu bada, honela jokatu beharko du aitortzaileak:

— Bere ordenagailu pertsonalean instalatu behar du Ogasun eta Finantza Departamentuak Interneteko <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna> helbide ofizialean jarria duen laguntza programa

— Programa horretako «Inportatu aitorpenak» aukera erabiliz, fitxategi informatizatua inportatu behar du, Ogasun eta Finantza Departamentuak gero balioztatzeko.

— Behin fitxategia balioztatu ondoren, programan jasotako gainerako urratsei jarraituko zaie fitxategia Ogasun eta Finantza Departamentuari bide telematikoz transmititzeko.

c) Editran sistema erabiliz, abenduaren 5eko 1.210/2002 Foru Aginduak, zenbait zerga eredu Editran sistema telematikokoaren bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak, jasotakoaren arabera.

Lau. Transmisioaren frogagiria.

Aurretik transmititutako aitorpenak gero berrikusteak akatsak agerian utzi baditzake ere, transmisio telematikoa egin eta berehala orri bat bistaratuko da pantailan, paperezko inprimakiaren laburpen-orriaren interesatuaren alearen tankerakoa, aitorpenak aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

Bost. Tramite gehiago egin beharrik ez.

Behin zerga aitorpena bide telematikoz transmititu eta gero, ez da beharrezkoa izango inolako agiririk aurkeztea Ogasun eta Finantza Departamentuan.

Sei. Transmisio telematikoa aurreko bat apartatuan aipatutako sinadura elektronikoa, pasahitz operatiboa edo kontraste datua erabiliz gero, banakako aitorpenak aurkeztu ahal izango dira.

Zazpi. Bide telematikoz bakarrik aldatu, zuzendu edo deuseztatu ahal izango dira bide telematikoz aurkeztutako aitorpenak, baldin eta foru agindu honek 3. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik aurkeztu badira.

Zortzi. Eguneko 24 orduetan egin ahal izango da aurkezpen telematikoa.

6. artikulua. Lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren pertsona edo entitate zerrendatuak, establezimendu iraunkorrik gabeak.

347 ereduaren zerrendatu behar diren pertsonak edo entitateak ez badira lurralde espainiarrean egoiliarrak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera, eta bertan establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute, haien posta kodea adierazteko «99XX» espresio alfanumerikoa jarriko da, «XX» karaktereak zerrendatutako pertsona edo entitatea bizi den herrialdearen kodea izango direlarik.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, ondoko hauek:

— 1332/2001 Foru Agindua, abenduaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 320, 347, 349, 370, 390, 391 eta 392 ereduak onartzen dituenak.

— 121/2000 Foru Agindua, otsailaren 22koa, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortzen 347 ereduak onartzen duena, eta barruko orrien ordeztaraz diren euskarri magnetikoen baldintzak eta diseinu fisiko eta logikoak onartzen dituenak.

— 106/2002 Foru Agindua, otsailaren 8koa, 180, 190, 193, 194, 345, 347 eta 349 ereduaren zerga aitortzen aurkezpen telematikoak baimentzen duena, 347 ereduari dagokionez.

Xedapen iragankorra.

Bakarra. 347 ereduaren telematiko eta sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz aurkeztera behartutak, 1.002/2008 Foru Agindua indarrean sartu arte.

Azaroaren 18ko 1002/2008 Foru Agindua, zergapeko jakin batzuk zerga aitortzen eta autotikidazioak sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoan igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, ondorioak izan arte, Gipuzkoako Foru Aldundian 2007ko ekitaldiagatik aurkeztutako 190 ereduaren lan etekinen abonak direla-eta aitortzen 25 erregistro edo gehiago zerrendatu dituzten zergapekoak behartuta izango dira 347 ereduaren telematikoan aurkeztera sinadura elektronikoko balioztatua erabilita.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2008. urtean eta hortik aurrerakoetan egindako eragiketengatik aurkeztu beharreko aitortzei aplikatuko zaie.

Donostia, 2008ko azaroaren 20a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(8738) (13320)

I. ERANSKINA



II. ERANSKINA



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal'>

347 ereduaren euskarria ordenagailuz zuzenean irakurtzeko diseinu fisiko eta logikoak.

A) EUSKARRI MAGNETIKOEN EZAUGARRIAK

Hona hemen ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriek bete beharreko ezaugarriak hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortenak (347 ereduak) aurkezteko:

— Disketeak: 3 ½"-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate handia (1.44 MB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

— CD-R (Compact Disc Recordable): Ahalmena: 700 MB-raino. ISO/IEC DIS 9660:1999 formatua, Joliet luzapena izan edo ez.

Euskarriek fitxategi bakar bat eramango dute, OPXX izendatuko dena. XX aitortzen den zerga ekitaldiaren azken bi zifrak izango dira, eta fitxategi bakar horrek erregistro mota ezberdinak jasoko ditu, B) atalean aipatzen den hurrenkeran.

Aitortzailearen ekipoa ez badu jarritako eskakizun teknikoetara egokitzeko gaitasunik, Zerga Informatikako unitateburuarengana jo beharko du. Helbidea: Errotaburu pasealekua 2, 20.018 Donostia. Tf.: 943.113.160, 943.113.161, 943.113.282. Faxe: 943.113.305.

B) DISEINU LOGIKOAK ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile edo zergapeko bakoitzarentzat hiru erregistro mota desberdin sartuko dira. Hauek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. *Mota:* Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. *Mota:* Eragiketen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

3. *Mota:* Errentamenduen erregistroa. 3. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da. Aitortzailearentzat 1. motako erregistro bakarra egongo da, 2. motako erregistroen kopurua aitortenenean jasotzen diren eragiketak adinako izango delarik. 2. motako azken erregistroaren ondoren negozio-lekuen errentamenduei dagozkien 3. motako erregistro guztiak erantsiko dira (ondasun higiezin zerrenda).

Eremu alfabetiko/alfanumeriko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira, hizki larriz eta karaktere numeriko edo berezirik gabe.

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta enpaketatu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfanumerikoak bete gabe -utziko dira.

Taldeakako aurkezpena egiten bada (aitortzaile edo zergapeko bat baino gehiago artxibo berean) euskarriaren lehen erregistro bezala 0 motako erregistro bat aurkeztuko da, apartatu honetan bertan erregistro mota horretarako deskribatzen dugun diseinuari jarraituz. Honek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori euskarrian ere aitortzaile gisa azaldu arren. Ondoren, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota); gero berak egindako eragiketak (2. mota) eta, azkenik, lokalen errentamenduak (3. mota); jarraian hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.

Eremu batean zenbateko bat eurotan adierazi behar den guztietan, ulertuko da azken bi posizioak zati hamartarra direla, eta gainerakoak zati osoa.

347 EREDUA
A. 0 MOTAKO ERREGISTROA:
TALDEKAKO AURKEZPENA
(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEKIN AZALPENAK)

Posizioak	Izaera	Eremuen azalpena
1	Numerikoa	<u>ERREGISTRO MOTA</u>
		“0” konstantea (zero).
2-4	Numerikoa	<u>AURKEZPEN EREDUA</u>
		“347” konstantea.
5-8	Numerikoa	<u>EKITALDIA</u>
		Euskarrian sartu diren aitortzen zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-10	Numerikoa	<u>AURKEZLEAREN PROBINTZIA KODEA</u>
		Datu hau sartzeko, aukeratu dagokion gako 1. motako erregistroan posizio hauetarako agertzen diren artean.
11-19	Alfanumerikoa	<u>AURKEZLEAREN NA/IFZ</u>
		Aurkezlearen NA/IFZ jarriko da.
20-59	Alfabetikoa	<u>AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIALTEAREN IZENA</u>

Posizioak	Izaera	Eremuen azalpena
		1. motako erregistroan aitortzailearentzat zehaztu den irizpide berberari jarraituz beteko da.
60-86	Alfanumerikoa	<u>AURKEZLEAREN ZERGA HELBIDEA</u>
		Eremu hau hirutan banatzen da:
		60-61: Zerga helbidearen siglak.
		62-81: Bide publikoaren izena
		Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenak zenbakiak dituenean letrekin adieraziko da (adibidez: maiatzaren 1, maiatzaren lehena jarriko da). Errepidea denean, Km. laburdura jarriko da bukaeran.
		82-86: Etxearen zenbakia edo puntu kilometroa (dezimalik gabe).
		Numerikoa izan behar du, eta bost posiziotakoa.
87-91	Numerikoa	<u>POSTA KODEA</u>
		Aurkezlearen helbide fiskalari dagokiona. Lehen bi posizioetan probintziaren gakoa jarriko da nahitaez, 2. motako erregistroan, 71-72 posizioetan, ageri den taulari jarraituz, eta hurrengo posizioetan hiru digituko zenbaki bat idatziko da. Zenbaki hau ez badago, azken hiru posizioetan hiru zero jarriko dira.
92-103	Alfabetikoa	<u>AURKEZLEAREN HERRIA</u>
		Hamabi posizio hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak baino ez dira jarriko, artikulua eta preposizioak gabe.
104-106	Numerikoa	<u>AURKEZLEAREN TELEFONO ZENBAKIAREN AURRIZKIA</u>
107-113	Numerikoa	<u>AURKEZLEAREN TELEFONO ZENBAKIA</u>
114-118	Numerikoa	<u>AITORTZAILE KOPURUA GUZTIRA</u>
		Taldeko euskarrian guztira zenbat pertsonak edo entitatek aitortzen duten adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua)
119-127	Numerikoa	<u>AITORTUEN KOPURUA GUZTIRA</u>
		“Aitortuen zerrendan” zenbat sartu diren eta “negozio-lekuen errentamenduen zerrendan” zenbat aitortu diren batu ondoren, ateratzen den kopurua adieraziko da hemen (2. eta 3. motako erregistro grabatuen batura).
128-180	-----	ZURIUNEAK

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zurienez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, ezkerraldeetik zeroz beteko direlarik.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zurienez beteko dira.

Posiciones	Naturaleza	Descripción de los Campos
1	Numérico	<u>TIPO DE REGISTRO.</u>
		Constante ' 0 ' (cero)
2-4	Numérico	<u>MODELO DE PRESENTACIÓN.</u>
		Constante- ' 347 '
5-8	Numérico	<u>EJERCICIO.</u>
		Las cuatro cifras del ejercicio fiscal al que corresponden las declaraciones incluidas en el soporte.
9-10	Numérico	<u>CÓDIGO PROVINCIA DE PRESENTACIÓN.</u>
		Para este dato se tomará la clave que corresponda de las que figuran en el registro de tipo 1 en estas mismas posiciones.
11-19	Alfanumérico	<u>D.N.I./N.I.F. DEL PRESENTADOR</u>
		Se consignará el NIF/DNI del presentador.
20-59	Alfabético	<u>APELLIDOS Y NOMBRE O DENOMINACIÓN O RAZÓN SOCIAL DEL PRESENTADOR</u>
		Se rellenará con el mismo criterio que el especificado para el declarante en el registro de tipo 1.
60-86	Alfanumérico	<u>DOMICILIO FISCAL DEL PRESENTADOR</u>
		Este Campo se subdivide en tres:

<i>Posiciones</i>	<i>Naturaleza</i>	<i>Descripción de los Campos</i>
		60-61: Siglas del domicilio fiscal
		62-81 Nombre de la Vía Pública.
		Ha de ser alfabético y, en consecuencia, la que tenga números en su nombre se consignará con letras (ejemplo: 2 de mayo, será dos de mayo). En caso de ser una carretera se finalizará con la abreviatura km.
		82-86 Número de la casa o punto kilométrico (sin decimales)
		Ha de ser numérico de cinco posiciones
87-91	Numérico	<u>CODIGO POSTAL</u>
		El que corresponda al domicilio fiscal del presentador, compuesto imprescindiblemente de la clave de provincia en las dos primeras posiciones de la tabla que figura en las posiciones 71-72 del registro tipo 2 y en las siguientes un número de tres dígitos. En caso de no existir este último, se consignarán tres ceros en las tres últimas posiciones.
92-103	Alfabético	<u>MUNICIPIO DEL PRESENTADOR.</u>
		Ocupa doce posiciones. Si el nombre excede de doce caracteres se consignarán los doce primeros sin artículos ni preposiciones.
104-106	Numérico	<u>PREFIJO DEL NUMERO DE TELÉFONO DEL PRESENTADOR</u>
107-113	Numérico	<u>NÚMERO DE TELÉFONO DEL PRESENTADOR</u>
114-118	Numérico	<u>TOTAL DE DECLARANTES.</u>
		Se indicará el número total de personas o entidades declarantes incluídas en el soporte colectivo. (Número de registros de tipo 1 grabados).
119-127	Numérico	<u>TOTAL DE DECLARADOS</u>
		Se consignará la suma del número de declarados, incluidos en la “relación de declarados”, y del número de arrendamientos, declarados en la “relación de arrendamientos de locales de negocio: (Suma del número de registros de tipo 2 y de tipo 3 grabados)
128-180	-----	BLANCOS

* Los campos numéricos que no tengan contenido se rellenarán a ceros.

* Los campos alfanuméricos/alfabéticos que no tengan contenido se rellenarán a blancos.

* Todos los campos numéricos ajustados a la derecha y rellenos de ceros por la izquierda.

* Todos los campos alfanuméricos/alfabéticos ajustados o la izquierda y rellenos de blancos por la derecha, excepto que se

especifique lo contrario en la descripción del campo.

B.- 1. MOTAKO ERREGISTROA:
AITORTZAILEA (347 EREDUA)
(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEEN AZALPENAK)

<i>Posizioak</i>	<i>Izaera</i>	<i>Eremuen azalpena</i>
1	Numerikoa	<u>ERREGISTRO MOTA</u>
		“1” konstantea (bat).

<i>Posizioak</i>	<i>Izaera</i>	<i>Eremuen azalpena</i>
2-4	Numerikoa	<u>AITORPEN EREDUA</u>
		“347” konstantea.
5-8	Numerikoa	<u>EKITALDIA</u>
		Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira hemen.
9-10	Numerikoa	<u>AITORTZAILEAREN PROBINTZIA KODEA</u>
		Jarri hemen aitortzailearen zerga helbideari dagokion gako numerikoa. Bere helbideko posta kodearen lehen bi zifrak izango dira bi posizioetan idatzi beharrekoak.
		Gertatzen bada helbidea Ceuta edo Melillan finkatuta dagoela, honako zenbaki hauek adieraziko dira orduan: 51 CEUTA 52 MELILLA
11-19	Alfanumerikoa	<u>AITORTZAILEAREN NA/IFZ</u>
		Aitortzailearen NA/IFZ jarriko da.
20-59	Alfanumerikoa	<u>AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZINETATEAREN IZENA</u> (Ordena horretan)
		Pertsona fisikoa bada jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.
		Pertsona juridikoak edo errentak egozten dituzten entitateak badira, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.
60-68	Numerikoa	<u>EROSKETAK: 3.005.06 EUROTİK GORA EROSITAKO ONDASUN ETA ZERBITZUAK. ZERRENDATURIKO PERTSONA ETA ENTITATEAK GUZTIRA</u>
		Zerrendatu diren pertsona eta entitateak guztira zenbat diren adieraziko da.
		Pertsona edo entitate bat behin baino gehiagotan agertzen bada zerrendatua euskarrian, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
69-83	Numerikoa	<u>EROSKETAK: 3.005.06 eurotik GORA EROSITAKO ONDASUN ETA ZERBITZUAK. ZERRENDATURIKO ERAGIKETEN ZENBATEKOA GUZTIRA</u>

<i>Posizioak</i>	<i>Izaera</i>	<i>Eremuen azalpena</i>
		Zerrendaturiko zenbatekoen batura adierazi behar da. (76tik 90ra arteko posizioak 2. motako erregistroetan).
84-92	Numerikoa	<u>SALMENTAK: 3.005,06 eurotik GORA EGINDAKO ONDASUN SALMENTAK ETA ZERBITZU PRESTAZIOAK. ZERRENDATURIKO PERTSONA ETA ENTITATEAK GUZTIRA</u>
		Zerrendatu diren pertsonak eta entitateak guztira zenbat diren adieraziko da. Pertsona edo entitate bat behin baino gehiagotan agertzen bada zerrendatua euskarrian, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
93-107	Numerikoa	<u>SALMENTAK: 3.005,06 eurotik GORA EGINDAKO ONDASUN SALMENTAK ETA ZERBITZU PRESTAZIOAK. ZERRENDATURIKO ERAGIKETEN ZENBATEKOA GUZTIRA</u>
		Zerrendaturiko zenbatekoen batura adierazi behar da. (76tik 90ra arteko posizioak 2. motako erregistroetan).

108-116	Numerikoa	<u>300,51 eurotik GORA EGINDAKO ORDAINKETA BITARTEKATUAK. ZERRENDATURIKO PERTSONA ETA ENTITATEAK GUZTIRA</u>
		Zerrendatu diren pertsona eta entitate aitortuak guztira zenbat diren adieraziko da. Pertsona edo entitate bat behin baino gehiagotan agertzen bada zerrendatua euskarrian, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
117-131	Numerikoa	<u>300,51 EUROTIK GORA EGINDAKO ORDAINKETA BITARTEKATUAK. ZERRENDATURIKO ERAGIKETEN ZENBATEKOA GUZTIRA</u>
		Zerrendaturiko zenbatekoen batura adierazi behar da. (76tik 90ra arteko posizioak 2. motako erregistroetan).
132-140	Numerikoa	<u>EROSKETAK: ENTITATE PUBLIKOEK, JARDUERA ENPRESARIAL EDO PROFESIONAL OROZ KANPO, 3.005,06 eurotik GORA EGINDAKO ESKURAPENAK. ZERRENDATURIKO PERTSONA ETA ENTITATEAK GUZTIRA</u>

Posizioak	Izaera	Eremuen azalpena
		Zerrendatu diren pertsona eta entitate aitortuak guztira zenbat diren adieraziko da. Pertsona edo entitate bat behin baino gehiagotan agertzen bada zerrendatua euskarrian, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
141-155	Numerikoa	<u>EROSKETAK: ENTITATE PUBLIKOEK, JARDUERA ENPRESARIAL EDO PROFESIONAL OROZ KANPO, 3.005,06 eurotik GORA EGINDAKO ESKURAPENAK. ZERRENDATURIKO ERAGIKETEN ZENBATEKOA GUZTIRA</u>
		Zerrendaturiko zenbatekoen batura adierazi behar da. (76tik 90ra arteko posizioak 2. motako erregistroetan).
156-164	Numerikoa	<u>HERRI ADMINISTRAZIOEK 3.005,06 eurotik GORA EMANDAKO SUBENTZIO, SOROSPEN ETA LAGUNTZAK. ZERRENDATURIKO PERTSONA ETA ENTITATEAK GUZTIRA.</u>
